

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEGUTIOKO UDALA

Kirol zerbitzuei buruzko arautegian egindako aldaketaren behin betiko onarpena

2018ko martxoaren 28an egindako ohiko bilkuran, hasierako aldaketa egin zitzaion Legutioko kirol zerbitzuen arautegiari. Jendaurrean egon den bitartean haren aurkako erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onartuta geratu da. Beraz, oso-osorik ematen da argitara, indarrean sar dadin, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 70.2 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Legutioko udalerriko kirol zerbitzuen arautegi orokorra

Lehenengo titulua

Xedapen orokorrak

1. artikulua

Arautegi honen xedea da Legutioko Udalaren kirol instalazioak eta gainerako kirol zerbitzuak erabiltzeko baldintzak eta erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak arautzea, Toki araubidearen oinarriari buruzko Legean xedatutakoari jarraituz.

2. artikulua

Legutioko Udalak, instalazioak behar bezala erabil daitezen, arautegi honetan ezarritakoa argitu, aldatu edo garatzeko xedapenak nahiz ebazpenak emateko eskubidea izango du, ezertan eragotzi gabe instalazioetan lan egiten duten pertsonen oharrak eta argibideak.

Arautegi hau eta urteroko arauak (ordutegiak, tasak...) jendearen eskura egongo dira udalaren bulegoetan eta web orrian.

Bigarren titulua

Instalazioen erabiltzaileak

1. kapitulua. Banako edo taldeko erabiltzaile izaera

3. artikulua

Arautegi honen ondorioetarako, erabiltzailea izango da prezio publikoak ordaintzeko prest dagoen pertsona oro, Legutioko udalerrian erroldatuta dagoela nahiz ez dagoela.

Legutioko Udalak urtero finkatuko ditu prezio publikoak.

4. artikulua

Instalazioen erabiltzaile izateko:

- a) Eskaera inprimakia bete beharko da.
- b) Agiri osagarriak aurkeztu beharko dira.
- c) Prezio publikoak ordaintzeko agiria aurkeztu beharko da.

5. artikulua

Arautegi honen ondorioetarako, erabiltzaitzat hartuko da udalaren kirol instalazioetara bidezko eran instalazio horiek eta bertako zerbitzuak erabiltzeko sartzan den eta, kasua denean, dagozkion prezio publikoak ordaindu dituen pertsona oro.

Ez dira erabiltzaitzat hartuko beren lan zeregina edo eginkizun profesionala betez instalazio hauetara sartzan diren pertsonak.

Legutioko Udalak urtero finkatuko ditu prezio publikoak.

6. artikulua

Legutioko Udalaren instalazioen hainbat motatako talde erabiltzaileak ezarri ahal izango dira, alde zuzenetik hitzarmena eginda. Horrela sailkatu ahal izango dira denboraldi bakoitzerako eskaerak egiten dituzten klub eta elkarteak.

2. kapitulua. Klubak eta elkarteak

7. artikulua

Legutioko Udalaren instalazioen talde erabiltzaile izango dira denboraldirako eskaera egiten duten klub eta elkarte guztiak.

8. artikulua

1. Entrenamenduak edota lehiaketak egiteko eskaerak urte bakoitzeko ekainaren 15etik irailaren 15era bitartean aurkeztu beharko dira.

2. Uztailaren 1etik abuztuaren 31ra bitartean egin nahi diren entrenamendu edota lehiaketarako eskaerak ekainaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dira.

3. Instalazioa erabiltzeko baimena jaso ondoren, klub edo elkarteak erabiltzaileen izen-dei-turen zerrenda aurkeztuko du.

4. Kirol denboraldia irailaren 1ean hasi eta hurrengo urteko ekainaren 30ean amaituko da.

9. artikulua

Baimenak aurkeztutako eskaeren arabera emango dira, instalazioetako ordutegiak eta Legutioko Udalaren irizpide teknikoak kontuan izanik ezarritako epearen arabera. Legutioko Udalarekin hitzarmenik ez duten kirol elkarte eta klubek hilero ordaindu beharko dute instalazioak erabiltzeagatik.

10. artikulua

Legutioko Udalaren instalazioetan entrenatzen diren taldeek lehentasuna izango dute, kategorien arabera, lehiaketako beren partidetarako pista erreserbatzeko.

11. artikulua

1. Instalazioetan entrenatzen diren taldeen partidetarako orduak, beranduenez, partida egiten den asteko asteartean berretsi beharko dira.

2. Lehiaketetako partidak instalazioan ezarritako ordutegiari lotu beharko zaizkio. Partida hasteko ordua ezingo da 15 minutu baino gehiago atzeratu instalazioarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik. Bestela partida bertan behera uzteko agindu ahal izango da, gainerako programazioari kalterik ez egiteko.

12. artikulua

1. Alokairua ordaindu beharretik salbuetsita ez dauden kontzesiodunek kontzesio ordu guztiak ordaindu beharko dituzte, erabiltzen ez dituztenak barne, baldin eta astebete lehenago abisua ematen ez badute ordu horiek erabilgarri egongo direla.

2. Lau aldiz huts egiten bada justifikaziorik gabe, instalazioa ez zaiela interesatzen esan nahiko du eta galdu egingo dute instalazioak erabiltzeko eskubidea eta abonamendua.

13. artikulua

Entrenamenduetarako baimenak Legutioko Udalak antolatzen dituen ekitaldien menpe egongo dira, eta lehendik baimendutako entrenamenduren bat arrazoi horrengatik bertan behar utzi edo ordua aldatu behar bada, ezingo da erreklamaziorik egin. Dena dela, gutxienez astebete lehenago jakinaraziko da inguruabar hori.

14. artikulua

Instalazioak noizbehinka eta eskaera ofizialik egin gabe erabiltzen dituzten klub, elkarte edo taldeak ez dira instalazioen erabiltzaile izango eta instalazioa erabiltzerakoan ordaindu beharko dute kasuan kasuko tasa.

Hirugarren titulua

Kirol instalazioen erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak

15. artikulua

Eskubide hauek izango dituzte erabiltzaile guztiek:

a) Kiroldegirako eta pilotalekurako sarbide libre asteburu eta jaiegunetan, baita Legutioko Udalak erabakitzen dituen bestelako zerbitzuak ere, ordutegien barruan eta jendeari irekita dauden egunetan.

b) Kirol ikastaro eta jardueretan inskribatu eta matrikulatu ahal izatea, dagokion prezio publikoa ordainduta. Horrako horiek zerga ordenantzak ezartzen dituen hobariak izango dituzte.

16. artikulua

Erabiltzaile guztiek, oro har, eskubide hauek izango dituzte:

a) Legutioko Udalak eskaintzen dituen kirol zerbitzu guztiak erabili ahal izatea, kasuan kasuko araudia betez.

b) Egoki deritzeten erreklamazioak egitea.

c) Arautegi honen ale bat eskatzea. Hala ere, jendearen eskura egongo da udalaren web orrian.

d) Indarra duen legedian eta arautegi honetan aitortzen zaizkien gainerako eskubideak.

17. artikulua

Erabiltzaileek, oro har, betebeharrak hauek dituzte:

a) Instalazioak erabiltzen dituztenean arautegi honetan xedatutakoa eta instalazioetako langileen oharrak betetzea.

b) Instalazioak eta ekipamendua behar bezala erabiltzea. Arduragabekeriaz edo txarto erabiltzearen ondorioz gertatzen diren kalteak egintzaren erantzulearen kontura izango dira.

c) Funtzionamenduan arazoren bat badago, zerbait apurtzen bada, hutsen bat gertatzen bada edo arautegi honetan xedatutakoa betetzen ez bada, udaleko langileei horren berri ematea.

d) Beste erabiltzaileen lehentasunezko eskubideak errespetatzea, batez ere alde aurretik erreserbatutako ordua.

e) Ezarritako tasak edo prezio publikoak behar garaian ordaintzea.

f) Instalazioetan portaera egokia izatea, une orotan langileen lana erraztuz. Nahitaezkoa izango da une orotan langile horienganako errespetuz jokatzeko, eta haien argibideei behar bezala jarraitzea.

- g) NANaren bidez bere burua identifikatzea, eskatzen zaienean, instalazioetara sartzeko.
- h) Indarrean dagoen legerian eta arautegi honetan ezartzen zaizkien gainerako betebeharrak.

Laugarren titulua **Instalazioetara sartzeko eta atxikitako guneak erabiltzeko arauak**

18. artikulua

Udalaren kirol instalazioen xedea da kirola sustatzea, kirolean aritzea eta gorputz hezkuntza lantzea, irabazteko asmorik gabe, eta halaber kirol eta kultura ikuskizunak egitea.

19. artikulua

Beren helburuen artean gorputz hezkuntza eta kirola sustatzea xede duten pertsona, kirol elkarte, klub, irakaskuntza zentro eta bestelako erakundeek instalazioak erabiltzeko eskubidea dute. Horretarako, Legutioko Udalak urtero onartzen dituen tasak eta prezio publikoak ordaindu beharko dituzte, hala badagokie.

20. artikulua

Instalazioak muga hauen barruan erabiliko dira:

1. Aldez aurretik ezarritako ordutegian.
2. Berariazko programazioari loturik, halakorik bada.
3. Udalak kasu berezietarako ezarritako baldintzak betez.

21. artikulua

Instalazioetara gauza baliotsurik ez eramatea gomendatzen da, udalak ez dituelako gordailuzaintza kontratuaren bidez babestuko armairuetan edo beste edonon uzten diren gauzak. Beraz, ez da udalaren ardura izango gauza horiek zaintzea.

22. artikulua

Erabiltzaileek unean uneko kirol jarduerarako soilik erabili ahal izango dituzte armairuak. Jarduera amaitutakoan armairua libre utzi beharko da.

23. artikulua

Arau orokor gisa, debekaturik dago udalaren instalazioetan animaliak sartzea, salbu eta ikusmen urritasuna duten pertsonen txakur gidariak.

Arau hori aldi baterako indargabetu ahal izango da ezinbesteko arrazoiak daudenean edo kasu berezietan, Udalak onartuz gero.

Bosgarren titulua **Legutioko Udalaren kirolguneak erabiltzeko arauak**

1. kapitulua. Xedapen orokorrak

24. artikulua

1. Kirolguneak norbanakoek, talde antolatuek, elkarteek, kirol klubek, ikastetxeak, kirol esparruen erabilera kontratatzen duten erakundeek edo pertsonak, udalak berak antolatutako jarduerak eta ikastaroak erabiliko dituzte, ezarritako programazioaren eta ordutegiaren barruan.

2. Kirol interesa edo interes teknikoa dagoenean, udalak erabaki dezake erabiltzaileei eta publiko orokorrari instalazioak ixtea eta erreserba eginda daukatenei ere instalazioak erabiltzeko eskubidea baliogabetzea. Horrelakoetan, alabaina, behar adina denbora lehenago emango du abisua.

3. Legutioko Udalak ez du erantzukizunik izango bere instalazioetan kirolean jardutearen ondorioz gerta daitezkeen istripuengatik.

4. Kirolguneetara sartzeko, kasuan kasuko kirol motari dagozkion jantziekin jantzita joan beharko da.

5. Instalazioak erabiltzen dituen irakaskuntza zentroak, kirol elkarteak, erakundeak edo pertsonak ordaindu beharko ditu arduragabekeriaren edo instalazioak txarto erabiltzearen ondorioz gertatzen diren kalteak, eta, lehiaketetako partidetan, aurkako taldeek eragiten dituzten kalteen erantzule subsidiarioa izango da.

6. Aldagelak erabiltzen diren kasuetan, instalazioak erabiltzeko ezarritako ordua baino 20 minutu lehenago sartu ahal izango da aldageletara. Lehiaketetako partidetan tarte hori 60 minuturaino luzatu ahal izango da, kategoriaren arabera. Behin instalazioak erabili eta gero, gehienez ere 20 minutuz egon ahal izango da aldageletan.

7. Ezingo da baloi, pilota edo bestelako objektuekin jolasean ibili aldageletan, pistetarako sarbideetan, harmailetan eta kirol esparrutzat jotzen ez diren gainerako tokietan.

8. Ikastetxeari Gorputz Hezkuntzako klaseetarako materialak erabiltzen utziko zaio. Amaitutakoan material horiek beren biltegiara eraman beharko dira.

9. Aldez aurretik ezarritako orduetan erabiltzen diren kirol esparruetatik alde egin beharko da ordu horiek betetakoan. Baliatu gabeko denboraren truke ezingo da luzapenik eskatu, salbu eta denbora erabili ez izanaren arrazoiek instalazioarekin zerikusia dutenean.

10. Udalak erabiltzaile guztiei gomendatzen die osasun azterketa egin dezatela udalak programatutako edozein jarduerari ekin aurretik.

2. kapitulua. Legutioko udal kiroldegia, tatami aretoa eta Elixoste gela erabiltzeko arauak

25. artikulua

Kiroldegiko kantxa, tatami aretoa eta Elixoste gela erabiltzeko, erreserba egin beharko da alde aurretik.

Erreserba hori ordu tarte jakin baterako egingo da, eta Udalak urtero onartzen dituen tasak edo prezio publikoak ordaindu beharko dira. Salbu eta kirol klub eta elkarteak, Udalak programatutako jardueretarako izena emandako erabiltzaileak, eta asteburu edo jaiegunetako erabiltzaileak, kantxazainaren gainbegiratzearen pean.

Erabiltzaile guztiek ordaindu beharko dute dutxaren prezio publikoa, zerbitzu hori erabiltzen badute, Udalak edo hitzarmena duten klubek antolatutako jardueretatik kanpo.

26. artikulua

Honelako erreserbak egin daitezke:

1. Denboraldiko erreserba, udalerriko kirol klub eta elkarteentzat. Arautegi honetan adierazitako moduan eskatu beharko da.

2. Hilabeterako, astelehenetik ostiralera arte ordutegiaren barruan eskatzen duten guztientzako (asteburu eta jaiegunetan ez dago erreserba egiterik).

3. Prozedura:

a) Iragarki oholetan adieraziko diren egunetan egin beharko dira erreserba eskaerak, hila-betea hasi aurreko 10 egunen barruan.

b) Erreserba, gutxienez, udalerrian erroldatutako 2 pertsonak egin beharko dute. Udalerrian erroldatutakoek egindako erreserbarik ez izatekotan, erroldatuta ez daudenek egin ahal izango dute.

c) Pertsona berak erreserbatu dezakeen gehieneko ordu kopurua astean ordu bat izango da. Hala ere, ordu liberrik geratzen bada, horiek eskuratu ahal izango dira.

d) Alokatzeko jarritako edozein ordu eskatu ahal izango da. Ezingo dira eskatu lehiaketa ofizialetako taldeen entrenamenduetarako diren orduak, ez eta eskola ordutegiaren barruan kiroldegian eta tatami aretoan gorputz hezkuntzako eskolak ematen diren orduak ere. Elixoste ez dago horren barruan.

e) Erroldatutako pertsonen osatutako taldeek izango dute lehentasuna erreserbatzean. Errol-datutako talde izango da taldeko, gutxienez, bi pertsona udalerrian erroldatuta daudenean.

f) Udalerriko talde bik edo gehiagok ordu bera eskatzen badute, zozketa egingo da.

g) Udalerriko 2 pertsonak ordu bera eskatzen badute eta haietako batek dagoeneko beste ordu bat badauka astean, besterik gabe, ordurik ez duenarentzat izango da.

h) Gaur egungo erabiltzaileek ezer adierazten ez badute, lehendik dauzkaten orduei eutsi nahi dietela iritziko da, eta ez dute berriro erreserbarik eskatu beharko.

i) Erreserbak alde aurretik ordainduko dira.

1. Prezio osoa ordainduko da, betiere eskatutako ordu guztiak erabiltzen badira.

2. Beti ordainduko da kantxaren prezioa, instalaziora joan zein ez.

3. Justifikaziorik gabe lau aldiz jarraian huts egiteak erreserba galtzea ekar dezake, eta ordura arte igarotako egunetako kantxa ordaindu beharko da.

j) Udalak eskubidea gordetzen du, egokitzen jotzen duen guztietan, orduen erreserbak balio gabetzeko, erreserbak egin dituztenak pertsona desberdinak izan arren taldeko kideak berak direla ikusten badu.

4. Unean unerako, ordu liberrik dagoenean. Erabilera hori erreserbaz baliatu baino lehenago ordaindu beharko da.

5. Urtero zehaztuko dira alokairu orduak, egutegiak onartutakoan.

6. Kiroldegia dohainik erabili ahal izango da larunbat, igande eta jaiegunetan, kantxazain zerbitzurako ezarritako ordutegietan; baita ere, instalazioa Udalak antolatutako jardueraren batekin edo hitzarmena duten klub edo elkarten partidekin okupatuta ez dagoen egun eta orduetan.

27. artikulua

Kantxazain zerbitzua erabiltzea asteburu eta jaiegunetan, arratsaldeko ordutegian.

1. Kiroldegian, asteburu eta jaiegunetan, 16:30etik 19:00etara arte, lona bereizgarria jaitsita egongo da bi kirol eremu egokitze (haur txikien eremua eta gaztetxo eta helduen eremua).

2. 19:00etatik aurrera, lona altxatu egingo da eta kantxa osoko kirol jarduerak egin ahal izango dira, gaztetxo eta helduei lehentasuna emanez, hala badagokio.

3. Partida ofiziala edo programatutako jarduera dagoen egunetan (normalean, 17:00etatik 19:00etara arte), itxiera ordura arte lona jaitsita dagoen egunak itxiera arte lona altxatuta dagoen egunekin txandakatuko dira.

Kantxazainak kartelak ipiniko ditu, egun horretako partidaren ondoren tokatzen denaren berri emateko.

4. Kiroldegia erabiltzen duenak onartu egiten ditu instalazioa erabiltzeko baldintzak; honako hauek dira:

a) Kantxa kirolerako erabiliko da eta ez beste zeregin batzuetarako.

b) Zehaztutako ordutegia beteko da eta, hura betetakoan, hustu egingo da.

c) Kantxa erabiltzen ari garelarik, onartzen dugu egiten ari garen jarduera bertan behera uztea, instalazioa ekitaldi, alokairu edo klub partida baterako eskatuta baldin badago.

d) Kiroldegiko materiala erabiliz gero, jasotako egoera berean itzuliko zaie instalazioetako langileei erabiltzeari utzitakoan.

e) Gizalegez jokatu da. Hala jardun ezean, kiroldegiko langileek kantxa husteko eskatu ahal izango dute, eta bete egin beharko dira haien aginduak. Kasu horretan, Udalak baloratu egingo du egitate horien erantzule diren pertsonen jarri ahal zaien zigorra, eta erabiltzaileari edo horren ardura duenari (gurasoei, adingabeak izanez gero) jakinaraziko dizkie zigorra eta horren arrazoiak.

f) Ezin da ez pipita edo antzekorik jan ez edan kiroldegi barruan (kantxa eta harmailak), erabiltzaileek behar dituzten unean uneko ura eta edari isotonikoak edo antzekoak izan ezik.

g) Ezin dira segurtasunezko ateak erabili, larrialdi egoeran izan ezik.

h) Kantxan ezin dira eskulekua duten patinak eta bizikletak erabili, parketa ez hondatzeko. Bizikletatzat hartuko da gurpil bat edo gehiago, eskulekua eta pedalak dituen elementu oro.

i) Ezingo dira mugitu edo desmuntatu aurretik udal langileek edo enpresa espezializatuek jarritako edo muntatutako egitura finko edo mugikorak. Egitura horiek udal langileek, enpresa espezializatuek edo udalak berariaz baimenduta pertsonen mugitu edo desmuntatuko dituzte. (Adibidez: eszenatokiak, material puzgarria, eta abar).

j) Zerbait apurtuz gero, arautegian xedatutakoa aplikatu eta zigortu egingo da haren VI. tituluan aurreikusitako arauari jarraituz.

k) Arauak betetzen ez badira, arautegi honen VI. tituluan ezarritako zigor arautegia aplikatuko da.

28. artikulua

Kiroldegia, tatami aretoa eta Elixoste gela erabiltzea Udalak antolatutako jarduera gidatu baten barruan (eskolaz kanpoko jarduerak eta helduen jarduerak).

1. Instalazio horiek eskola adineko erabiltzaileentzat eta helduentzat dira. Gazteagoek instalazio horiek erabili ahal izango dituzte baldin eta Udalak baimendutako monitore edo entrenatzaileek laguntzen badiete. Helduek ere, uneoro, jarduera gidatu horien barruan, jarduera horretako monitoreak lagunduta egon beharko dute.

2. Kiroldegia, tatami aretoa eta Elixoste gela gidatutako jardueretarako areto bezala erabiltzea programatu ahal izango da egin beharreko jardueren arabera, eta programazio hori udalaren zuzendaritzaren pean egongo da.

3. Kiroldegira honako era hauetatik sartzea egongo da:

a) Kiroldegiko goiko atetik. Jarduera horretarako izena emanda egonez gero, tasa edo prezio publikoa ordainduta. Salbuespen moduan, eta udaleko teknikariaren baimenarekin, proba egun bat eduki ahal izango da zuzendutako edozein jardueratan.

b) Betiere taldeko pertsona arduradunaren bitartez egingo da sarrera.

c) Erabilera ordutegia urtero egutegia onartzean ezartzen dena izango da.

4. Tatamira honako era hauetatik sartzea egongo da:

a) Kiroldegiko goiko atetik edo, beheko partetik, kiroldegira sartzeko burdinsaretik. Jarduera horretarako izena emanda egonez gero, tasa edo prezio publikoa ordainduta. Salbuespen moduan, eta udaleko teknikariaren baimenarekin, proba egun bat eduki ahal izango da zuzendutako edozein jardueratan.

b) Betiere taldeko pertsona arduradunaren bitartez egingo da sarrera.

c) Erabilera ordutegia urtero egutegia onartzean ezartzen dena izango da.

5. Elixostera honako era hauetatik sartzeari egongo da:

a) Ate nagusitik, jarduera baterako izena emanda egonez gero, tasa edo prezio publikoa ordainduta. Salbuespen moduan, eta udaleko teknikariaren baimenarekin, proba egun bat eduki ahal izango da zuzendutako edozein jardueratan.

b) Betiere taldeko pertsona arduradunaren bitartez egingo da sarrera.

c) Erabilera ordutegia urtero egutegia onartzean ezartzen dena izango da.

6. Kiroldegiaren barruan programatutako jardueren erabiltzaileek erabat ordenatuta utzi beharko dituzte erabilitako elementuak, funtzionamendu egokirako eta beste erabiltzaileen mesederako.

7. Erabiltzaileei gomendatzen zaie osasun azterketa egin dezatela gidatutako kirol jardueraren aurretik, ziur jakiteko jarduera fisiko hori egin dezaket. Udalak ez du erabiltzaileen osasun arazoan erantzukizunik izango.

8. Kirol jantzi eta oinetako egokiak erabili beharko dira eta ezingo da kaleko oinetakoak jantzita kantzara sartu, ezta ere oinetakoekin tatamira ere.

3. kapitulua. Fitness aretoa erabiltzeko arauak

29. artikulua

1. Instalazio hau 16 urtetik gorako erabiltzaileentzat da. Gazteagoek instalazio horiek erabili ahalko dituzte udalak baimendutako monitore edo entrenatzaileek laguntzen badiete.

2. Fitness aretoaren programazioa egin beharreko jardueren arabera egingo da, eta programazio hori udalaren zuzendaritzaren pean egingo da.

3. Gaztedi Alai pilotalekuko harmailaren azpian dagoen fitness aretora era hauetatik sartzeari egongo da:

a) Hatz markaren bidezko sarbide kontrol biometrikoa.

b) Hatz marka ezin denean hartu azalaren higaduragatik edo bestelakoengatik, hurbilketa txartel bat emango zaio instalazioetan sartzeko. Txartel pertsonala eta eskualdaezina da, beste pertsona bati lagatzekotan berekin ekarriko duena arautegi honetako VI. tituluan jasotzen den zigor araubidea aplikatzea.

Galduz gero edo denboraldiaren amaieran ez bueltatzekotan, titularrak eman zaion txartel berria ordaindu beharko du, udalaren ordenantzan ezarritako prezioaren arabera.

4. Fitness aretoaren erabiltzaileek erabat ordenatuta utzi beharko dituzte erabilitako elementuak, funtzionamendu egokirako eta beste erabiltzaileen mesederako.

5. Erabiltzaileei gomendatzen zaie osasun azterketa egin dezatela muskulazio gimnasioa erabili aurretik, ziur jakiteko erabili dezaket. Udalak ez du erabiltzaileen osasun arazoan erantzukizunik izango.

6. Kirol jantzi eta oinetako egokiak erabili beharko dira eta ezingo da kaleko oinetakoak jantzita instalazioan sartu.

7. Aldageletan jantziz aldatu eta gero, norbere gauzak armairuetan utzi behar dira (ez alda-geletan, ez aretoaren barruan).

8. Fitness aretoaren erabiltzaileentzako armairuak ez dira pertsonalak eta ezin daitezke gauzak egun batetik beste baterako utzi.

9. Makinak modu egokian erabili behar dira (postura eta pisu egokiak). Aparailu horiek nola erabili ez jakitekotan, galdetu behar zaio monitorerari, edo Udalaren Kirol Zerbitzuari kontsultatu.

10. Nahitaezkoa da eskuoihala erabiltzea aparailuetan gelditzen den izerdia kentzeko.

11. Aldageletan, dutxa eremuan xukatu behar da, ez eserlekuen eremuan.

12. Aparailuren bat hondatuta edo oker aurkitzekotan eta/edo fitness aretoari eta bere funtzionamenduari buruzko iradokizunen bat edukiz gero, monitoreari azaldu ahal zaio, edo bertan helburu horrekin dagoen iradokizun postontzia erabili.

13. Aretoko edozein makina erabiltzeko jendea zain badago, makina gehienez ere 20 minutu erabili ahal izango da. Zain dauden erabiltzaileei lekua utziz. Denbora zenbatzen hasiko da erabiltzaileak makina okupatzen duen unetik beretik.

4. kapitulua. Ur aretoa (bainu turkiarra, sauna eta kontrastea) erabiltzeko arauak

30. artikulua

1. Dagokien tasa edo prezio publikoa ordaintzen egunean dauden fitness aretoko bazkideak sartu ahal izango dira, 16 urteko adinetik aurrera. 18 urte artekoek, pertsona heldu batek lagunduta joan beharko dute.

2. Ezin daiteke argazki edo bideo kamerarik erabili, telefono mugikorrak barne.

3. Ezin daiteke musika aparailua erabili.

4. Ezin daiteke erre.

5. Ez dago janariarekin edo uraz bestelako edariekin sartzetik.

6. Ezin da erabili fitness aretoan, pilotalekuan etab. ariketa egiteko erabilitako arropa.

7. Ez dago xaboiak dutxatzerik. Kontraste dutxa saunaren eta bainu turkiarraren zirkuituaren osagai bat da, ez da norbere burua garbitzekoa. Norbere burua garbitzeko, aldagelak erabiltzen dira.

8. Ezin daiteke bizarra moztu saunaren eta bainu turkiarraren barruan, ez eta beste inolako gorputz higieen mota ere.

9. Ezin daiteke jan, edo hondakinak sortzen dituen beste edozein ekintza egin.

10. Ezin daiteke libururik, aldizkaririk edo paperik sartu ur aretoaren barruan.

11. Ezin daiteke gorputzerako inolako kremarik eman ur aretoan sartu baino lehen.

12. Ezin daiteke ur aretoaren eremuan sartu azaleko gaixotasun kutsakorren bat edukiz gero, edo bihotzeko gaixotasunik, diabetesa, hipotentsioa edo hipertentsioa edukiz gero. Haurdun dauden emakumeek ere ez daukate sartzetik.

13. Ezin daiteke sauna erabili otordu oparo baten ondoren.

14. Nahitaez txinalak eta bainujantzia erabili behar dira.

15. Nahitaezkoa da ongi dutxatu eta xukatzea, saunan edo bainu turkiarrean sartu baino lehen. Dutxa barruan lehortzea eskatzen da.

16. Gomendatzen da, hasieran, 10-15 minutu baino gehiagoko saiorik ez egitea.

17. Nahitaezkoa da saunatik edo bainu turkiarretik irtetea, saioaren edozein momentutan zorabiatuta, goragalez edo ondoezik sentituz gero.

18. Saunaren ondoren, gomendatzen da dutxa hartzea, lehenengo epela eta gero hotzagoa (edo, zuzenean, kontrastera pasatu) eta 5-10 minutuz atsedena hartu. Esperientzia edukiz gero, beste saio bat egin liteke, 10-15 minutukoa, eta aurrekoan bezalaxe bukatu.

19. Nahitaez eskuoihala erabili behar da gorputzaren azpian, sauna erabiltzeko.

20. Instalazioa erabili eta gero, nahitaez ate guztiak ongi itxita utzi behar dira beti.

21. Erabiltzaileei gomendatzen zaie osasun azterketa egin dezatela sauna erabili baino lehenago, ziur jakiteko hura erabil dezaketen. Udalak ez du erabiltzaileen osasun arazoan erantzukizunik izango.

22. Sauna saioek gutxi gorabehera ordu beteko iraupena izango dute. Denbora hori igarota, eremu horretatik irten egin beharko da, beste erabiltzaileei lekua uzteko.

23. Sauna erabiltzeko ordutegia eta egunak, urtero egutegian ezartzen direnak izango dira.

5. kapitulua. Gaztedi-Alai pilotalekua erabiltzeko arauak

31. artikulua

Pilotalekuko kantxa erabiltzeko, erreserba egin beharko da alde zuzenetik. Erreserba hori ordu tarte jakin baterako egingo da, eta Udalak urtero onartzen dituen tasak edo prezio publikoak ordaindu beharko dira, salbu eta kirol klub eta elkarteak, fitness aretoan izena emandako erabiltzaileak eta asteburuetako edo jaiegunetako erabiltzaileak, kantxazainaren gainbegiratzearen pean.

Erreserba horiek egiteko lehentasun hurrenkera hau egongo da:

1. Legutioko Udala.
2. Di-Da kluba.
3. Astegunetako eta asteburuetako alokairuak (azken hauek, kosturik gabe).
4. Fitness aretoaren erabiltzaileak.
5. Gainerako erabiltzaileak.

32. artikulua

Honelako erreserbak egin daitezke:

1. Denboraldiko erreserba, udalerriko kirol klub eta elkarteentzat. Arautegi honetan adierazitako moduan eskatu beharko da.

2. Astebeterako, astelehenetik ostiralera arte ordutegiaren barruan eskatzen duten guztientzako. Asteburu eta jaiegunetan ez dago erreserba egiterik (egunean eta kantxazainaren bitartez bakarrik, eta erreserba hori doakoa da).

3. Hilabeterako, astelehenetik ostiralera arte ordutegiaren barruan eskatzen duten guztientzako.

Asteburu eta jaiegunetan ez dago erreserba egiterik (egunean eta kantxazainaren bitartez bakarrik, eta erreserba hori doakoa da).

Ondoko era honetan egingo da:

a) Iragarki oholetan adieraziko diren egunetan egin beharko dira erreserba eskaerak, hilabetea hasi aurreko 10 egunen barruan.

b) Erreserba, gutxienez, udalerrian erroldatutako 2 pertsonak egin beharko dute. Udalerrian erroldatutakoek egindako erreserbarik ez izatekotan, erroldatuta ez daudenek egin ahal izango dute.

c) Pertsona berak erreserbatu dezakeen gehieneko ordu kopurua astean ordu bat izango da. Hala ere, ordu liberrik geratzen bada, horiek eskuratu ahal izango dira.

d) Alokatzeko jarritako edozein ordu eskatu ahal izango da, baina ezingo dira eskatu Di-Da klubaren entrenamenduetarako jarritako orduak, edo udalak eginda dauzkan erreserbak (ikas-tolaren une jakinetarako, ekitaldietarako, etab.).

e) Federatuak lehiaketa helbururik gabe entrenatzeko klubak egiten dituen erreserbetan, 4 jokalariek eduki beharko dute udal klubarekiko federazioaren fitxa.

f) Udalerriko talde bik edo gehiagok ordu bera eskatzen badute, zozketa egingo da.

g) Udalerriko 2 pertsonak ordu bera eskatzen badute eta haietako batek dagoeneko beste ordu bat badauka astean, besterik gabe, ordurik ez duenarentzat izango da.

h) Gaur egungo erabiltzaileek ezer adierazten ez badute, lehendik dauzkaten orduei eutsi nahi dietela iritziko da, eta ez dute berriro erreserbarik eskatu beharko.

i) Erreserbak alde zuzenik ordainduko dira.

1. Prezio osoa ordainduko da, betiere eskatutako ordu guztiak erabiltzen badira.

2. Beti ordainduko da kantzaren prezioa, instalaziora joan zein ez.

3. Justifikaziorik gabe lau aldiz jarraian huts egiteak erreserba galtzea ekar dezake, eta ordura arte igarotako egunetako kantxa ordaindu beharko da.

j) Udalak eskubidea gordetzen du, egokitzat jotzen duen guztietan, orduen erreserbak balio gabetzeko, erreserbak egin dituztenak pertsona desberdinak izan arren taldeko kideak berak direla ikusten bada.

4. Unean unerako, ordu librerik dagoenean. Erreserba erabiltzerakoan ordaindu beharko da unean uneko erabilera.

5. Urtero zehaztuko dira alokairu orduak, egutegiak onartutakoan.

6. Pilotalekua dohainik erabili ahal izango da larunbat, igande eta jaiegunetan, kantzazain zerbitzurako ezarritako ordutegietan; baita ere, instalazioa Udalak antolatutako jardueraren batekin edo hitzarmena duten klub edo elkarten partidekin okupatuta ez dagoen egun eta orduetan, dohainik izango da. Erabilera doakoa da, baina erreserba egiten duen pertsonaren datuekin erreserbatu behar da kantxa, eta pilotalekura sartzeko giltzak bueltatu, hori erabili ondoren. Hori guztia, udal kiroldegian dagoen kantzazain zerbitzuaren bidez.

Pilotalekuko argiak piztea behar bada, kiroldegia irekita dagoenean hara joan, eta kantzazainari argia behar dela adierazi beharko zaio. Kantzazaina izango da pilotalekura joan eta dagokion kommutagailua sakatuko duena. Une horretatik, 90 minutu argi egongo dira.

Kiroldegiko materiala erabiliz gero, jasotako egoera berean itzuliko zaie instalazioetako langileei erabiltzeari utzitakoan. Pilotalekura sartzeko giltzak kantzazainari bere lan ordutegiaren barruan emango zaizkio, jarduera amaitutakoan eta egun berean.

Norbaitek dutxak erabili nahi baditu asteburu edo jaiegun batean, kiroldegira joan, udalak ezarritako prezioa kantzazainari ordaindu, eta kiroldegiko dutxak (ez pilotalekukoak) erabili beharko ditu dutxatzeko. (Asteburu eta jaiegunetan bakarrik).

7. Pilotalekua erabiltzen duenak onartu egiten ditu instalazioa erabiltzeko baldintzak; honako hauek dira:

a) Kantxa pilotalekuko kirolak egiteko erabiliko da, eta ez beste zeregin batzuetarako.

b) Zehaztutako ordutegia beteko da eta, hura betetakoan, hustu egingo da.

c) Kantxa erabiltzen ari garelarik, onartzen dugu egiten ari garen jarduera bertan behera uztea, instalazioa ekitaldi, alokairu edo klub partida baterako eskatuta baldin badago.

d) Gizalegez jokatu da. Hala ez egitekotan, kantzazainak instalazioa husteko eskatu ahal izango du, eta bete egin beharko dira haren aginduak. Kasu horretan, Udalak baloratu egingo du egitate horien erantzule diren pertsonen jarri ahal zaien zigorra, eta erabiltzeari edo horren ardura duenari (gurasoei, adingabeak izanez gero) jakinaraziko dizkie zigorra eta horren arrazoiak.

e) Zerbait apurtuz gero, arautegian xedatutakoa aplikatu eta zigortu egingo da, IV. tituluaren arabera.

f) Arauak betetzen ez badira, zigor prozedura aplikatuko da.

33. artikulua

Pilotalekua erabiltzea Udalak antolatutako jarduera gidatu baten barruan (eskolaz kanpoko jarduerak eta helduen jarduerak).

1. Instalazio horiek eskola adineko erabiltzaileentzat eta helduentzat dira. Gazteagoek instalazio horiek erabili ahal izango dituzte baldin eta Udalak baimendutako monitore edo entrenatzaileek laguntzen badiete. Helduek ere, uneoro, jarduera gidatu horien barruan, jarduera horretako monitoreak lagunduta egon beharko dute.

2. Pilotalekua gidatutako jardueretarako areto bezala erabiltzea programatu ahal izango da egin beharreko jardueren arabera, eta programazio hori udalaren zuzendaritzaren pean egongo da.

3. Pilotalekura honako era hauetatik sartu ahal izango da:

a) Instalazioaren atzeko aldetik, pilotalekuaren ondoko ate txikitik. Jarduera horretarako izena emanda egonez gero, tasa edo prezio publikoa ordainduta. Salbuespen moduan, eta udaleko teknikariaren baimenarekin, proba egun bat eduki ahal izango da zuzendutako edozein jardueratan.

b) Betiere taldeko pertsona arduradunaren bitartez egingo da sarrera.

c) Erabilera ordutegia urtero egutegia onartzean ezartzen dena izango da.

4. Pilotalekuaren barruan programatutako jardueren erabiltzaileek erabat ordenatuta utzi beharko dituzte erabilitako elementuak, funtzionamendu egokirako eta beste erabiltzaileen mesederako.

5. Erabiltzaileei gomendatzen zaie osasun azterketa egin dezatela gidatutako kirol jardueraren aurretik, ziur jakiteko jarduera fisiko hori egin dezaketen. Udalak ez du erabiltzaileen osasun arazoan erantzukizunik izango.

6. Kirol jantzi eta oinetako egokiak erabili beharko dira eta ezingo da kaleko oinetakoak jantzita kantzara sartu.

6. kapitulua. Ikastaroetan eta denboraldiko jardueretan izena emateko arauak

34. artikulua

Udalak denboraldi bakoitzean hainbat kirol modalitatetako ikastaro eta jarduerak antolatzen dituzenez gero, ondoko hau ezartzen da:

a) Urtean behin emango da izena, deialdian ezartzen diren epeen barruan.

b) Izen emateek ez dute indarririk izango dagokien ordainketa egin arte.

c) Izen ematean ordainduko da, kreditu txartelaren bidez edo eskura nahiz emailez ordaindu izanaren agiriaren bidez.

d) Jarduera edo ikastaroa hasita gero, haren hasieratik hilabete igarota, ezin izango da inola ere eskatu kuotaren dirua itzultzeko.

e) Ikastaro eta jarduera guztiek, egin ahal daitezken, gutxieneko inskripzio kopurua lortu beharko dute, urtero adieraziko da zenbat.

f) Era berean, eta eskolen kalitatea zaintze aldera, ikastaro bakoitzean zenbat ikasle egon daitezkeen gehienez adieraziko da urtero.

g) Ikastaroa edo jarduera egiteko gutxieneko pertsona kopurua ez badago, bertan behera utziko da, eta inskribatutakoei dirua itzuliko zaie ahalik eta arinen.

h) Hobariak edo deskontuak izateko eskubidea duten pertsonak hala adierazi beharko dute izena emateko orduan, ikastaroen prezioan haietaz baliatu ahal izateko.

i) Ikastaroko monitorearen aldaketa ez da dirua itzultzeko arrazoia izango.

j) Ezinbestez ikastaro bat bertan behera uzten bada, bertan behera utzitako klaseei dagokien diru kopurua itzuliko zaie parte-hartzaileei.

k) Ikastaro edo jardueren iraunaldiaren barruan atsedenaldiak ezarri ahal izango dira. Atsedenaldiak urtero iragarriko dira.

Seigarren titulua Zehapen araubidea

35. artikulua

Zehapena dakarren arau haustea izango da arautegi honetan ezarritako arauak ez betetzea.

36. artikulua

1. Portaera egokia ez duten pertsonak ohartarazteko eta are instalazioetatik kanporatzeko ahalmena dute instalazioen arduradunek.

2. Hutsegiteek honako zehapen hauetakoren bat ekarriko dute:

a) Ohartarazpena.

b) Aldi baterako kentzea erabiltzaile eskubidea.

c) Erabiltzailearen eskubideak behin betiko kentzea.

3. Hutsegite horiek aztertzean, kontuan hartuko dira erantzukizuna alda dezaketen inguruabar astungarriak, aringarriak edo salbuesleak. Nolanahi ere, akzio judizialak hasiko dira Udalak arestian aipatutako ekintzetan erantzukizun penala edo zibila dagoela antzematen duenean.

4. Gauzak apurtzeagatik, materiala, giltzak eta abar galtzeagatik eta erabilera okerragatik beste edozein kalte egiteagatik, 2. puntuko zigorrez gainera, diru zehapena jarri ahal izango da. Horren zenbatekoa kasu bakoitzean zehaztuko da, egindako kaltearen arabera.

Zazpigarren titulua Erreklamazio liburua

37. artikulua

Udal instalazioen erabiltzaileen eskubideak bermatuta egon daitezen, udaletxean erreklamazio liburua egongo da erabiltzaileen eskura.

Edozein erabiltzailek, NANA aurkeztuz gero, erreklamazio liburua erabili ahal izango du, instalazioetako zerbitzuen funtzionamenduan akatsen bat ikusten duenean. Bere NAN zenbakia, izena, bi deiturak eta helbidea jarri beharko ditu.

Erreklamazioa egiten duenak orri bat beteko du eta horren kopia gordeko du.

Zortzigarren titulua Azken xedapenak

38. artikulua

Zenbait zerbitzu erabiltzeak, artikulua osagarriak eta zabalagoak eragin ditzake, erabiltzaileek hobeto uler dezaten.

39. artikulua

Arautegi honetan aurreikusita ez dauden kasuak hasiera batean instalazioko arduradunak ebatziko ditu. Gero Kultura eta Kirol Batzordearen esku jarri ahalko dira, auzi bereziak konpontzeko.

40. artikulua

Arautegi honetan egiten diren aldaketak eta urte bakoitzeko tasak behar bezala argitaratuko dira, ahalik eta hedapen handiena izateko moduan.

Legutio, 2018ko maiatzaren 29a

Alkatea

NEKANE GARAIGORDOBIL BENGOA